

Justizia eta erreparazioa Guatemalan, sexu-indarkeriatatik eta gizateriaren aurkako beste krimen batzuentatik



UNAMG
UNION
NACIONAL DE
MUJERES
GUATEMALTECAS



Argitalpen hau *Fortalecimiento de defensoras del derecho a la verdad, la justicia y la reparación con enfoques de género y local-global. Intercambio de aprendizajes, formación y creación de recursos pedagógicos* (PRO-2022K3-0021) proiektuaren esparruan egin da.

Finantzatzailea:



Justizia eta erreparazioa Guatemalan, sexu-indarkeriagatik eta gizateriaren aurkako beste krimen batzuegatik

Koordinazioa: Alejandrina Cano Romero eta Genoveva Marroquín (UNAMG),
Gloria Guzmán (Hegoa)

Argitaratzaileak:



www.unamg.org

3ª Avenida 2-23, Zona 1
01001 Ciudad de Guatemala
Guatemala



hegoa@ehu.eus

www.hegoa.ehu.eus/eu

UPV/EHU

Zubiria Etxea

Lehendakari Agirre, 81

48015 Bilbo

Tel.: (34) 946 01 70 91

UPV/EHU

Carlos Santamaría Zentroa

Elhuyar plaza, 2

20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: (34) 943 01 74 64

UPV/EHU

Koldo Mitxelena Biblioteka

Nieves Cano, 33

01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: (34) 945 01 42 87

Itzultzailea: Iñigo Gallastegi

Disenatzailea eta maketatzaila: Marra, S.L.

ISBN: 978-84-19425-30-0

2024



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Aurkibidea

1. Sarrera	4
2. Aurrekari historikoak: sexu-indarkeria	5
3. Kasu ezagunak	7
3.1. Sepur Zarco kasua	7
3.2. Emakume Atxien kasua	12
3.3. Molina Theissen kasua	15
4. Biktimak artatzeko politikak	19
4.1. Erreparazio Programa Nazionala	19
4.2. Desagertutako pertsonak bilatzeko mekanismoak	22
4.3. Datu genetikoen bankua	23
5. Amnistia ahaleginak eta inpunitatearen aldeko ekintzak: etengabeko arriskua	24
6. Ondorioak	29
7. Bibliografia	31

1. Sarrera

Argitalpen hau UNAMG Emakume Guatemalarren Batasun Nazionalak Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa Institutuaren laguntzaz egindako ikerketa dokumental baten emaitza da. Ikerketaren helburua, bada, Guatemalako barne gatazka armatuan gertatutako sexu-indarkeria kasu ezagunetako biktimak justizia eta erreparazioa eskuratzeko egiten ari diren prozesua aztertzea izan da. Hain zuzen ere, Sepur Zarco (2016), Emakume Atxien (2022) eta Molina Theissen kasuei buruz ari gara. Hiru kasu horietan, erantzuleak –guztiak Guatemalako Armadako kideak– kondenatuak izan dira, eta erreparazio neurriak ezarri dira.

UNAMG ezkerreko erakunde feminista bat gara, eta hainbat gizarte subjektuk osatzen dugu. Bertan, feminismotik abiatuta, errealitatea modu integral batean interpretatzen dugu, hura eraldatzeko. Prestakuntzako laguntza emateko, UNAMGn ezinbestekotzat hartzen dugu lehenik gure praktika eraginkorrenak identifikatzea, hain zuzen ere, gaitasun teknikoak indartzen eta emakumeen ahalduntze prozesuetan beren jarrerak eta praktikak aldatzen laguntzen duten horiek. Hegomendebaldeko, Erdialdeko eta Valle del Polochic eskualdeetan lan egiten dugu. Gure esperientzietara hurbiltzeak, bada, gure ekintzak emakumeen errealitateen eta premien arabera birformulatzeko aukera ematen digu.

UNAMGren ustez, barne gatazka armatuan zehar –eta gaur ere– emakumeen aurka erabilitako sexu-indarkeria bistaratzen jarraitu beharra dago, egia ezagutzeko eta justizia eta erreparazioa eskatzeko, trantsizioko justiziako kasuetan dauden eta erreparazio-eskubidea duten emakumeekin batera. Egia argitzeko eta justizia bilatzeko bidea luzea eta zaila bada ere, biktimen jarraikitasunak eta adoreak oso aurrekari baliotsuak ezarri dituzte, justizia-sistema indartzeko eta herrien borroka eta erresistentzia bultzatzeko, batez ere Guatemalako emakumeei dagokienez.

Bada, ikerketa honen bitartez, kontzientzia kritikoa pizten lagundu nahi dugu; izan ere, hori da UNAMGren ekintza-ildo nagusietako bat. Kontzientzia kritiko hura, praktika koherente batekin batera, zapalkuntzen kausa historikoak ulertzeko eta horiei aurre egiteko ezinbesteko baldintza da, eta inguru pribatuak eta publikoak eraldatzeko ekimenak eragiten ditu. Beraz, lan honen bitartez, hausnarketak eta ekintzak sustatu nahi ditugu, hain zuzen ere, emakumeek justizia eta erreparazioa lortzeko dituzten aukerak hobetzeko, eta delitu larri horiek errepika ez daitezen eta modu eraginkorrean prebeni daitezen.

Honako lan hau dokumentala da batez ere. Hala, Guatemalako eta nazioarteko hainbat erakunderen txostenetan aipatutako kasuen epaiak, lege-ekimenak eta gobernu akordioak aztertu ditu. Gainera, Molina Theissen familiaren kasuan, elkarriketa pertsonal bat ere egin dugu, azterketa dokumentalaren osagarri gisa.

2. Aurrekari historikoak: sexu-indarkeria

Guatemalako barne gatazkak 36 urte iraun zituen, 1960tik 1996ra bitartean, eta, horretan, zibilen giza eskubideen urraketa larriak gertatu ziren. Hain zuzen, herri maiak eta talde eta mugimendu aurkariak sarraskitzeko Estatu-politiken barruan, Armadak sexu-indarkeria erabili zuen gerrako arma gisa. Izan ere, Segurtasun Nazionalaren Doktrinak “barne etsaitzat” jotzen zituen subjektu horiek. Zenbait kasutan, indarkeria hura tortura zentzagarri gisa erabili zen, batez ere enpresa nazional eta internazionalak eragindako desjabetzeari eta beren lurraldean destakamentu militarren ezarpenari aurre egiten zioten komunitate indigenetako emakumeen aurka. Beraz, “gizarte ehuna” urratzeko eta “borrokatzeko borondatea” hausteko ahalegin bat zen (Impunity Watch, 2022: 6) Halaber, sexu-indarkeria erakunde, sozial, politiko eta sindikaletan eta ikasle erakundeetan aktibo zeuden emakumeen aurka ere erabili zen.

Datuen erregistroa eskasa zela onartu bazuen ere, Guatemalako Historia Argitzeko Batzordeak (CEH) 1.465 kasu dokumentatu zituen barne gatazka armatuan zehar egindako sexu-bortxaketekin lotuta. Bortxaketa horiek, gainera, giza eskubideen beste urraketa larri batzuekin batera gertatu ziren. Bortxaketen biktimen % 89 emakume maiak izan ziren, eta % 35 neskak (CEH, 1999). Egitate horiek, bada, inpaktu izugarria izan zuten herri eta lurralde maietan; izan ere, sexu-bortxaketaren bitartez “gizakia eta bere alderdi espirituala zauritzen dira”, baita gizarte-bizitza ere, “komunitateek berek emakume horiek seinalatzen eta estigmatizatzen” baitzituzten (Impunity Watch, 2022: 7).

Trantsizioko justiziako kasuetan salatutako egitate horiek gertatu ziren eskualdeetan, oro har, zapalkuntza, desjabetze, estigmatizazio eta kriminalizazio baldintzak ematen dira oraindik ere. Hala, enpresa nazional eta internazionalak eragindako gatazkek eta kriminaltasunaren hedapenak emakumeen segurtasuna urratzen jarraitzen dute eskualde horietan, bai gatazka armatuan zehar sexu-indarkeria pairatu zuten emakume horienak, bai belaunaldi berrienak ere. Horrek, indarkeriaren *continuum* bat finkatzen du emakumeen eta emakume indigenen aurka, eta indarkeria estruktural, patriarkal eta arrazistako moduak erakusten ditu. Zenbait egilek emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren izaera historikoa nabarmentzen dute: “*Sexu bortxaketa eta esklabotza kolonizazio arma bat izan zen. Hura, zehazki, emakume indigenen gorputzen aurka bideratu zen, haiek suntsitzeko, eta, haien bitartez, haien herriak ere. Eredutoki gerran zehar errepikatu zen*” (Fulchiron, 2021); “*Guatemalako historiako hainbat unetan, nagusi zen dominazio-logikarekin bat, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako egitateak erregistratu dira, eta batez ere sexu-indarkeria*” (Méndez eta Alvarado, 2018: 15).

Errealitate horren aurrean, Guatemalako emakumeen mugimenduek memoria eta ahizpatasun sarea ehuntzen eta biktimei laguntzen jarraitzen dute. Emakumeen, feministen, emakume indigenen eta trans emakumeen mugimenduak gatazka armatuan gertatutako giza eskubideen urraketa larriak salatzeko eta indarkeriaren biktimei laguntzeko ekintza ugari egin dituzte, eta, horien artean, Kontzientzia Auzitegiak edo auzitegi sinbolikoak aurkitzen ditugu, hain zuzen ere, 1998, 2010 eta 2019ko urteetan egindakoak. Horiek azterketa,



Argazkia: Alejandra Cabrera.

eztabaida eta aintzatespeneko eremu garrantzitsuak dira, eta sexu-indarkeriak eta arrazakeria estrukturalak herrialdean duten irismena eta inpaktuak agerian utzi dituzte.

Hala, barne gatazka armatuan zehar emakumeen kontra erabilitako sexu-indarkeriaren aurkako Kontzientzia Auzitegia 2010. urtean sortu zen. Haren magistratuek honako hau adierazi zuten beren kontsiderazioetan: *“genero-indarkeria eta, zehazki, sexu-indarkeria eta emakumeen eta nesken aurkako bortxaketak gerrako arma gisa erabili dira eta oraindik erabiltzen dira, eta gizateriaren eskubideen idealarekin bat egiten duen giza kontzientziarentzat kezgarria eta onartezina den tamaina hartu dute”* (UNAMG eta Hegoa, 2012: 157-158). *“Iraganeko eta gaur egungo sexu-indarkeria krimen bat da”* izeneko 2019ko Kontzientzia Auzitegiak frogatu egin zuen arrazakeria estrukturala ere emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen bat dela, eta sexu-indarkeria betikotu egiten dela lurralde indigenetan inposatutako megaproiektuen militarizazio esparruan. Bada, ekimen simboliko horiek Guatemalako emakumeen eta nesken aurkako indarkeriaren *continuum* hura agerian uzten lagundu dute.

Gainera, auzitegi horiek lagungarriak izan dira bertan lekukotza eman zuten sexu-indarkeriaren biktimek justiziaren aurrean salaketa egin dezaten. Bestalde, judizializatzen diren kasuen inguruan sareak antolatzea da Guatemalako emakumeen mugimenduaren beste jarduera bat. Izan ere, kasu horietan, erakundeek ekintza legalez gain, ekintza mediatikoak, eragitekoak eta biktimei laguntzeko ekintzak ere egiten dituzte, biktima horiengan ardaztutako narratiba bat sortzeko eta beren eskubideen ikuspegiaren arabera jarduteko.

3. Kasu ezagunak

Batez ere biktimen eta haiei laguntzen dieten erakundeen ahaleginei esker, nazioarteko justiziako eta erreparazio duin eta eraldatzaile baterako estandarrak herrialdeko lege-esparruetan sartzea lortu da kasu ezagun batzuetan. Aipatuko ditugun kasuek aurrerapen handiak eragin dituzte giza eskubideen arloan, Guatemalako zein nazioarteko justizia-sisteman; batez ere, biktimen lekukotzaren garrantziari eta froga-balioari dagozkienez. Alderdi horrek, arlo juridikoan aurrekariak ezartzeaz gain, balio handia ematen du arlo sozial eta mediatikoan, narratibak aldatzen laguntzen baitu. Izan ere, Méndezen eta Alvaradoren hitzetan (2018: 21), “sexu-indarkeria da biktima errunduntzat jotzen den krimen bakarra”.

Biktimen alde ebazteko atzerapena kontuan hartuta –trantsizioko justiziako kasu gehienetan lau hamarkada behar izan dira–, erronka nagusi bat da auzitegiek emandako epaietan ezarritako erreparazio-neurriak bizkortzea. Hori funtsezkoa da biktimentzat, eta gizarte osoarentzat ere. Izan ere, emakumeen eta beren komunitateen eskubideen urraketak ahalbidetu zituzten baldintzak eraldatzeko ahalmena dute neurri horiek; hau da, ez errepikatzeko bermeetara bideratzen dira. Gainera, lortutako epaiek Estatua interpelatzen dute, eta arreta emateko eta erreparazioak betetzeko erantzukizuna ematen dio. Gainera, sexu-indarkeria emakumeen lurralde-gorputzaz jabetzeko tresna gisa legitimatzen duen gizartearen imajinarioan hausturak eragiten dituzte.

3.1. Sepur Zarco kasua

“Niretzat oso garrantzitsua da gure herrialdeak gure ahotsa entzutea eta gure historia ezagutzea, guri gertatutakoa beste inori ez gertatzeko”.

María Ba Caal, Sepur Zarcoko biziraulea
(NBEko Emakumeen Saila, 2018).

Sepur Zarco herria Valle de Polochic eskualdean aurkitzen da, El Estos (Izabal) eta Panzós (baja Verapaz) udalerrien artean. Gatazka armatuan zehar beste eskualde batzuetan gertatu zen bezala, Armadak destakamendu militar bat ezarri zuen Sepur Zarcon eta sei urtez, 1982tik 1988ra bitartean, bertan operatu zuen. Komunitateko familia maia kektziek bere egoitzen bortxatzeak eta etxebizitzaren eta uzten suntsitzea pairatu zituzten. Gainera, zenbait gizon –lurra eta eskubideak eskatzeko antolatutako buruzagi komunitarioak– legez kontra atxilotuak eta desagertuak izan ziren. Horien emazteek eta beste emakume batzuek sexu-indarkeria eta sexu-esklabotza pairatu zuten, indibiduala zein kolektiboa; baita etxeko esklabotza ere, militarrentzat txandaka kozinatzerara eta uniformeak garbitzera behartu baitzituzten. Lekualdatzera ere behartu zituzten, eta destakamentu militarren inguruan etxoletan bizi behar izan zuten (UNAMG, 2016).

Gertakari horietatik 30 urtera, emakume bizirauleek isiltasuna hautsi zuten eta jasandako indarkeriarekin lotutako estigma gainditu zuten. Hala, 2012an, gertatutakoa salatu zuten, eta 2016an lehen epaia lortu zuten, nazio mailako auzitegi baten eskutik, gatazka armatuan zehar jasandako sexu-indarkeriagatik, sexu-esklabotzagatik eta etxeko esklabotzagatik. Hiru hilabeteko ahozko epaiketa publikoan, Guatemalako Arrisku Handieneko A auzitegiak, erruduntzat jo zituen Esteelmer Reyes Girón teniente koronel erretiraturia, *Teniente Reyes* bezala ezaguna eta Sepur Zarcoko Base Militarreko komandante ohia, eta Heriberto Valdez komisionatu militar ohia, *Canche Asig* bezala ezaguna. Auzitegiak, hurrenez hurren, 120 eta 240 urteko zigorra ezarri zien.

Esteelmer Reyes Girónen kasuan, epaiak gizateriaren betebeharren aurkako delituen erruduntzat jo zuen modu hauetan: sexu-indarkeria, hamaika emakume maia kektxiren aurkako tratu umiliagarriak eta apalesgarriak, eta Dominga Coc eta bere bi alaba adingabe Hermelinda eta Anita Seb Coc hiltzea. Heriberto Valdezen kasuan, epaiak gizateriaren betebeharren aurkako delituen erruduntzat jo zuen modu hauetan: sexu-indarkeria, emakume maia kektxien aurkako tratu umiliagarriak eta apalesgarriak, eta desagertze behartua (Zigor Epaia, Narkoaktibitatearen eta Ingurumenaren Aurkako Delituen Lehen Auzitegia, 2016).

Epai hori, bada, Guatemalako legedian oinarritzen da, hain zuzen ere, gizateriaren betebeharren aurkako delituei buruzko Zigor Kodearen artikuluetan. Halaber, nazioarteko araudia hartu zen kontuan, hala nola Genevako Hitzarmenetan adierazitako Nazioarteko Zuzenbide Humanarioa, Emakumearen aurkako Diskriminazio Modu Guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW) eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena, besteak beste (UNAMG 2016). Lege-oinarri horiek berak, geroago, epaitegi nazionalak giza eskubideen antzeko urraketen biktimen alde emandako beste epai batzuetan ere erabili ziren.

Gainera, kasu honen funtsezko beste alderdi bat da auzitegiak 16 erreparazio-neurri ezarri zizkiela Estatuaren zenbait instantziari (ikus 1. taula).

1. taula. Sepur Zarco kasuan ezarritako erreparazio-neurriak

Neurria	Arduraduna
- Sepur Zarco, San Marcos, Poombaac eta La Esperanza komunitateetako eskolen azpiegitura hobetzea. - Erdi-mailako hezkuntzako zentro elebiduna instalatzea neska, gazte eta emakumeentzat. - Sepur Zarcoko biztanle guztiei ikasketa-bekak ematea hiru hezkuntza mailetan. - Ikasketa programetan Sepur Zarcoko emakumeen kasuari buruzko testu-liburuak sartzea.	Hezkuntza Ministerioa.
- Sepur Zarcoko emakumeei eta beren kolektibitateari zuzendutako kultura-proiektuak garatzea. - Hezkuntza Ministerioarekin batera, Sepur Zarcoko emakumeen kasua lantzen duen dokumental bat egitea. - Sepur Zarco kasuaren epaia 24 maia hizkuntzetara itzultzea.	Kultura eta Kirol Ministerioa.
Sepur Zarco komunitatean osasun-zentro bat eraikitzea.	Osasun Publikoko eta Gizarte Laguntzako Ministerioa.
Desagertutako pertsonak abian jarritako lurren tramiteekin jarraitzea.	Estatua, gaur egun dagokion erakundearen bitartez.
Prestakuntza Militarreko ikastaroetan emakumeen giza eskubideei buruzko eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko legeei buruzko gaiak sartzea.	Defentsa Ministerioa.
Erakunde kereilarietako kideen, biktimen eta haien senideen segurtasuna bermatzeko neurriak koordinatzea.	Gobernazio Ministerioa.
Urtebeteko epean Sepur Zarcoko emakumeen justizia-bilaketa irudikatzen duen monumentu bat eraikitzea.	El Estor-eko Udala.
Komunitateak eta biktimen etxebizitzak oinarritzko zerbitzuez hornitzeko gestioak egitea.	Sepur Zarco, San Marcos, Poombaac eta La Esperanza komunitateetako garapen-batzordeak.
Desagertutako pertsonak aurkitzeko ikerketarekin jarraitzea Sepur Zarcon eta inguruan.	Ministerio Publikoa.
Desagertze behartuaren biktimen senideei eta sexu-bortxaketa, sexu-esklabotza eta etxeko esklabotza jasan zuten hamaika emakumeei kalte-ordain ekonomikoa ematea.	Epaitutako Esteelmer Reyes eta Heriberto Valdez Asig.
Erakunde kereilariak tramitea abiatu beharko dute otsailaren 26a "Sexu-indarkeriaren, sexu-esklabotzaren eta etxeko esklabotzaren biktimen egun" deklaratzeko, eta dagozkion gestioak egin beharko dituzte Guatemalako Errepublikako Kongresuaren aurrean, Desagertze Behartuaren Legearekin lotuta.	Erakunde kereilariak.

Iturria: Egileak, Zigor Epaia, Narkoaktibitatearen eta Ingurumenaren aurkako Delituen Lehen Auzitegiaren 20216ko otsailaren 26ko C-01076-2012-0002 epaian oinarrituta.

Epai horrez geroztik, bizirauleek eta lagun dituzten giza eskubideen erakundeek epaia guztiz betetzera presatu dituzte Guatemalako Estatua eta dagozkion gobernuak. Halaber, plangintza estrategikoa eta operatiboa orientatzeko proposamenak egin dituzte arlo teknikoan, politikoan eta erakunde artekoan, epaiaren arabera arduraren bat duen organo bakoitzarentzat.

Sepur Zarco kasuaren demandatzaileak



Iturria: Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Presidentetza Batzordearen (COPADEH) ataria¹.

1 <https://copadeh.gob.gt/>

Epaiaik ezarritako erreparazioetatik honako hauek bete dira (ikus 2. taula):

2. taula. Sepur Zarcoko kasuan bete diren erreparazioak
Sepur Zarcoko emakumeen justizia-bilaketa irudikatzen duen monumentua eraikitzea.
Sepur Zarcoko emakumeei zuzendutako kultura-proiektuak garatzea (egiteko bidean).
Sepur Zarcon osasun-zentro bat eraikitzea
Erdi mailako Hezkuntzako zentro elebiduna instalatzea.
Sepur Zarco, San Marcos, La Esperanza eta Poombaac komunitateetako Garapen Batzordeen bitartez oinarritzko zerbitzuen zuzkidura kudeatzea (egiteko bidean).
Sepur Zarco kasuaren epaia kektxi hizkuntzara eta Guatemalako gainontzeko hizkuntzetara itzultzea.
Sepur Zarcori buruzko dokumentala Kultura eta Kirol Ministerioaren eskutik.
Sepur Zarcori buruzko dokumentala, Hezkuntza Ministerioaren eskutik.

Iturria: Egileak, Mujeres Transformando el Mundo² erakundearen eta COPADEH Bakearen eta Giza Eskubideen Aldeko Presidentetza Batzordearen informazioan oinarrituta.

Otsailaren 26a "Sexu-indarkeriaren, sexu-esklabotzaren eta etxeko esklabotzaren biktimen egun" deklaratzeko neurriari eta Desagertze Behartuaren Legeari lotutako gestioei dagokienez, erakunde kereilariak bi ekimen aurkeztea lortu dute, bata 2017an eta bestea 2021ean. Lehenengoak aldeko irizpena badu ere, biek jarraitzen dute Errepublikako Kongresuak onartzeko zain.



2 <https://mujerestransformandoelmundo.org>

3.2. Emakume Atxien kasua

Emakume Atxien kasua Baja Verapáz departamenduko Rabinal herriko 36 emakume maia atxiri dagokie. Emakume horiek Armadaren eta PAC³ taldeko patruilarien sexu-indarkeria pairatu zuten gatazka armatuan zehar, hain zuzen, 1981etik 1985era bitartean. 2011an, Ministerio Publikoaren aurrean salatu zuten gertatutakoa, Rabinaleko Herri Bulego Juridikoaren laguntzaz.

Rabinal herria Baja Verapáz departamenduan aurkitzen da, eta, eskualdeko beste udalerrri batzuek bezalaxe, matxinoen aurkako politiken ezarpena jasan zuen. Emakume Atxien kasuak, bada, Armadak eta Estatuko beste indar batzuek herritar indigenen aurka egindako krimenak erakusten ditu, hala nola sexu-indarkeria, gerrako arma gisa, emakumeak zigortzeko. *La lucha de las Mujeres Achí por la justicia* (Emakume Atxien borroka justiziaren alde) txostenak, talde horretako kide den Paulina Ixpatári gertatutakoa jasotzen du:

"1981 abuztuaren 16an, Paulinak bere anaia Tereso galdu zuen. Tereso aldi baterako lan bila joan zen Rabinal herrira, herrialdeko Hego Kostaldeko lursailetara, eta desagertze behartuaren biktima izan zen. 1982ko uztailaren 29an, Armadak eta patruilariak bere familiako 15 kide eta 14 auzokide masakratu zituzten, horietako asko adingabeak, Baja Verapáz departamenduko Santa Cruz El Chol herriko Rancho Bejuco etxaldean. Ia bi hilabete geroago irailaren 25ean, Armadako zenbait kidek legez kontra atxilotu zuten Paulina, 19 urte zituela, eta bere amaren aurrean eta inolako frogarik gabe gerrillari izatea leporatu zioten. Rabinaleko destakamentu militarra eraman zuten, eta, bertan, 25 egunez modu basatian bortxatu eta torturatu zuten. Óscar Mejía Víctores jeneralaren diktadura militarrean ezarritako amnistiari heltzeko dokumentu bat sinatu zuenean askatu zuten. Gainera, Paulina eta bertako beste emakume batzuk Rabinaleko destakamentuko soldaduentzat kozinatza eta etxeko lanak egitera behartu zituzten. Ezin zuten ezetz esan, hilko ote zituzten beldur zirelako. Patruilariak heriotza-mehatxua egiten zioten bere familiari eta beren lurak eta ondasunak kendu zizkieten" (Impunity Watch, d.g.: 1-2).

3 Testuingurua ulertzeko eta komunitateen aurka erabilitako indarkeria dimentsionatzeko Autodefentsa Zibileko Patruilen (PAC) jatorria aipatu beharra dago. Taldea Romeo Lucas García jeneralaren gobernuan zehar (1978-82) sortu zen, baina gero Efraín Ríos Montt jeneralaren gobernuan zehar legalizatu zen, herritar zibilak matxinatuen aurkako borrokaren partaide egiteko eta komunitateak kontrolatzeko eta zelatzeko (ODHAG, 2007: 95). "*Autodefentsa Zibileko Patruiletan (PAC) parte hartu behar izateak bizitza komunitarioa desegituratu zuen. Taldearen egitura hierarkikoak –eredu militarren arabera– botere-harreman, arau eta balio berriak ezarri zituen, armak edukitzean eta derrigortzean oinarrituta. Gizarte jarduera guztiak PACen, eta, hortaz, Armadaren zuzeneko edo zeharkako kontrolaren edo ikuskapenaren menpe geratu ziren*" (ODHAG, 1998, l: 118). Historia Argitzeko Batzordeak (CEH, 1998) barne gatazka armatuan zehar egindako krimenen % 18 leporatu zizkion PAC taldeari, eta, kalkuluen arabera, gatazkan egindako sarraski guztien % 20tan parte hartu zuen taldeak (ODAHG, 1998).

Ezarritako izugarrikeriak eta isiltasunak ez zuten 36 emakume horien justizia bilatzeko borondatea hautsi. Emakumeek 2011n jarri zuten salaketa, baina 2018. urtera arte ez ziren patruilari horietako zazpi atxilotu. Justiziaren bidea malkartsua izaten da biktimentzat, batez ere emakume indigenentzat. Hala, 2019an, Claudette Domínguez epaileak ez zien froga-balioa eman emakume horien lekukotzei, eta patruilarietako sei faboratu zituen. Haietako hiruren kasuan largespena eman zuen eta beste hiruren kasuan prozesua behin-behinekoz amaitu zuen. Horrek haserre handia piztu zuen eta atzerapauso handia izan zen. Hala ere, emakumeen ordezkari legalek epailea errekusatzeko ekintzak egin zituzten eta salaketa jarri zioten, arrazakeria eta diskriminazioa leporatuta. Errekusazio horri esker, kasua Miguel Ángel Gálvez epaileari eman zioten, eta hark arrazoizko zantzuak aurkitu zituen akusatuak epaitzeko.

2022ko urtarrilean, Francisco Cuxum Alvarado, Damian Cuxum Alvarado, Bembenuto Ruiz Aquino, Bernardo Ruiz Aquino eta Gabriel Cuxum Alvarado patruilari ohiak epaitu zituzten, eta 30 urteko kartzela zigorra ezarri zieten gizateriaren aurkako krimen eta emakume maia atxien aurkako sexu-indarkeriako eta etxeko esklabotzako delitu bakoitzeko. Gainera, Gabriel Cuxum Alvaradori beste 8 urteko kartzela zigorra ezarri zioten egoera zibila ezabatu eta aldatzeagatik, eta 2 urtekoa ustezko izenaren erabilera publikoagatik (Zigor Epaia, Narkoaktibitatearen eta Ingurumenaren aurkako Delituen Lehen Auzitegia, 2022).

Epaia ezarritako 12 erreparazio neurrietatik (ikus 3. taula), bitan egin da aurrera, biktimen beren eta lagun dituzten erakundeen lanari esker. Honako hauek izan dira: epaia inprimatzea eta zabaltzea, eta Rabinalen erdigunean mural bat egitea (Ross, 2023).

Achí kasuaren demandatzaileak



Argazkia: Alejandra Cabrera.

3. taula. Maia Atxi Herriko Emakumeen Kasuko erreparazio neurriak	
Indemnizazio neurria	Arduraduna
Kalte-ordain ekonomikoa bost patruilariak bortxatutako emakumeentzat.	Zigortuak.
Errehabilitazio neurriak	
- Rabinaleko Xecoc, Guachipilín eta Buena Vista komunitateetan osasun-zentroak jartzea, bizirauleek osasun-arreta izan dezaten. - Bizirauleentzat osasun planak garatzea. Horietan tratamendu psikologikoa, psikiatrikoa eta ginekologikoa eta analisiak eta sendagaiak sartu behar dira.	Osasun Ministerioa.
Erreparazio neurriak	
- Giza eskubideei, emakumeen eskubideei eta partaidetza politikoari buruzko prestakuntza-programa bat garatzea Rabinalen, gatazka armatuko eta gaur egungo sexu-indarkeriaren biktimei zuzenduta. - Emakume Atxien kasuko biktimen aurkako sexu-indarkeriagatik barkamena eskatzeko ekitaldi publiko bat egitea Xococ komunitatean. - Bizirauleen historia kontatzeko materialak egitea, atxieraz eta gaztelaniaz. - Bizirauleek egiaren eta justiziaren alde egindako borrokari buruzko dokumental bat egitea, atxieraz eta gaztelaniaz. - Bizirauleen justiziaren aldeko borroka irudikatzen duen mural bat egitea. - Epaia Organismo Judizialaren webgunean argitaratzea, eta horren laburpen bat atxieraz egitea. - Bizirauleen seme-alabei eta bilobei ikasteko bekak ematea.	Emakume Indigenaren Defendatzailea (DEMI). Defentsa Nazionaleko Ministerioa. Hezkuntza Ministerioa. Kultura eta Kirol Ministerioa. Kultura eta Kirol Ministerioa. Erakunde Judiziala eta Maia Hizkuntzen Akademia. Hezkuntza Ministerioa.
Ez errepikatzeko bermeak	
- Memoria historikoaren irakaskuntza Oinarritzko Curriculum Nazonalean sartzea, Historia Argitzeko Batzordearen txostenak eta Emakume Atxien kasuaren txostenak dokumentatzen duten bezala. - Genero indarkeria prebenitzeko prestakuntza-prozesu bat garatzea, Armadari eta Polizia Nazionale Zibilar zuzendua.	Hezkuntza Ministerioa. Defentsa Ministerioa eta Gobernazio Ministerioa.

Iturria: Egileak, Impunity Watch-en oinarrituta (2022: 10-11).

Kasu honetan, bizirauleek ez errepikatzeko bermeak bilatzea ez da salbuespena; aitzitik, helburu nagusietako bat da, Paulina Ixpatáren hitzek adierazten duten bezala: "Guk, gatazka armatuan zehar sexu-bortxaketa jasan dugun emakumeok, gertatutakoa kontatzeko adorea izan dugu, gizarte honetan horrelako ekintza ankerrak berriz gerta ez daitezen, ez gizonen eta ez, bereziki, emakumeen aurka. Guri egindakoaren erantzuleei dagokie lotsa" (Impunity Watch, d.g.: 11). Adierazpen horiek oso balio handia dute, batez ere, kontuan hartuta, Aura Cumesek kasu honetako generoko txostenean adierazi zuen bezala, "sexu-indarkeria

oso suntsitzailea” dela. Izan ere, sexu-indarkeriak biktima zuenei zein beren komunitateei eragiten die, eta “isiltasun bakarti bat ekartzen du”. Indarkeria horren bitartez Atxi herria suntsitu nahi izan zuten (Impunity Watch, 2022: 7).

3.3. Molina Theissen kasua

Emma Guadalupe Molina Theissen erdi-mailako hezkuntzako ikasleen lider bat izan zen. 19 urterekin Lanaren Guatemalako Alderdiaren (PGT) Gazteria Patriotikoan parte hartzen zuen. “Subertsibotzat” jotzen zuten, gobernuaren aurkako ekintza politikoetan parte hartzen zuelako. Hala, Sololáko departamenduko kontrol militar batean atxilotu zuten 1981eko irailaren 27an. Quetzaltenangoko Manuel Lisandro Barillas base militarra eraman zuten, eta bertan, galdekatu, torturatu eta hainbatetan bortxatu zuten. Halaber, bederatzi egunez jatekorik eta edatekorik gabe eduki zuten, berak ihes egitea lortu zuen arte. Ihes egin eta egun batera, urte horretako urriaren 6an, bahitzaileak Emmaren familiaren etxean agertu ziren, Guatemalako Hirian, eta bere anaia Marco Antonio Molina Theissen eraman zuten, 14 urtekoa. Umeari “girgiluak jarri, zaku batean sartu eta plaka ofizialak zituen *pick up* baten atzeko partean eraman zuten” (CEJIL, 2020). Orduz geroztik, ez dakigu non dagoen.



Molina Theissen familiak hainbat ekintza egin zituen hari buruzko informazioa lortzeko eta Marco Antonio bizirik berreskuratzeko. Salaketa jarri zuten justizia auzitegian, eta, prozesu luze baten ondoren, 2004an, familiak lehenengo epai bat lortu zuen Giza Eskubideen Amerika arteko Auzitegiaren eskutik. 2018an, bigarren epaia lortu zuen nazio mailan. Azken horretan, auzitegiak Marco Antonio Molina Theissenen desagertze behartuaren erruduntzat jo zituen Manuel Benedicto Lucas García, Manuel Antonio Callejas y Callejas, Hugo Zaldaña Rojas eta Francisco Gordillo Martínez.

Desagertze behartuaren praktika Guatemalan oso ohikoa izan zen barne gatazka armatuaren errepresioaren esparruan. Izan ere, 40.000 atxilotu desagertu zituzten, horietatik 5.000 inguru adinez txikiak. Praktika hura Giza Eskubideen Amerika arteko Auzitegiaren hainbat epaitan azaltzen da, hala nola, Molina Theissen kasuan (CIDH, 2004) eta Gudiel Álvarez eta beste batzuen kasuan (“Diario Militar”) (CIDH, 2012). Molina Theissen familiaren kasuak, gainera, talde ilegalen eta inteligentzia militarreko egituren arteko jardunbidea eta komunikazio eta antolakuntza maila erakusten ditu. Izan ere, base militarrek espetze ilegal, tortura eta hilketa zentro, desagertze behartuko eremu eta hilerri klandestino gisa erabiltzen zituzten, hala nola Alta Verapazeko Cobán udalerrian kokatutako 21. Gune Militarrean—orain Creompaz gisa ezagutzen dena—edo Chimaltenangoko departamenduko Comalapa herrian kokatutako Destakamentu Militarrean aurkitutakoak.

Prozesuan, bada, Molina Theissen familiak kriminalizazioa eta jazarpena jasan dute, baita auzi maltzurereko ekintzak, epaituen defentsaren eskutik. Horren adibide da Konstituzionaltasun Gorteak hiru zigortuen alde egindako ebazpena, epaitegiari “ordezko neurriak” ezarriko zituen ebazpen berri bat egitea eskatzen ziona. 2023ko ekainaren 9an, Lucas Garcíari, Francisco Gordillori eta Antonio Callejasi neurri horiek eman zizkieten,

nazio mailako eta nazioarteko legeek hura debekatzen duten arren. Justiziaren ukapen eta eragozpen maila hain da handia, non behin eta berriz, epaituen defentsak lege-ekintzak aurkeztu dituen Molina ahizpetako baten senarraren DNA frogak eskatzeko, argudiatuz hura dela Marco Antonio, eta, beraz, desagertutako haurra familiaren barruan egon dela eta ez dagoela desagertuta. Erasotzaileen zigorgabetasuna bermatzeko ahaleginez gain, etengabeko jazarpena dago isiltasuna hautsi eta erasotzaileak salatzea erabaki zuten emakume horien aurka.

Giza Eskubideen Amerika arteko Auzitegiaren epaiak zenbait erreparazio-neurri ekarri zituen. Bete diren horien artean ditugu Molina Theissen familiari eragindako kalte material eta ez-materialen ordainketa; Villanuevako Mártires del Pueblo kolonian dagoen eskolari Marco Antonio izena jartzea; Estatuaren erantzukizuna onartzeko ekitaldi publiko bat. Ez betetakoan artean ditugu desagertutako pertsonaren ustezko heriotza deklaratzeko, helburu zibilekin; Marco Antonioren gorpua ikertzea, aurkitzea eta itzultzea, ehorzketa duin bat emateko; eta desagertutako pertsonen datu genetikoaren banku bat sortzea.

2018an Guatemalan emandako epaiak ere zenbait erreparazio neurri jaso zituen, eta Estatuaren zenbait erakunderi eman zien horiek betearazteko ardura (ikus 4. taula). Hala ere, epaia oraindik ez da irmoa eta, beraz, nazio mailan ez da inolako erreparazio neurririk eman.

4. taula. Molina Theissen kasuko erreparazio neurriak	
Erreparazio neurria	Erakunde arduraduna
Biktimen erregistro nazional bat sortzeko legeak egitea. 3590 Lege-ekimena onartzea, Desagertutako Pertsonak Bilatzeko Batzorde Nazionala sortzeko.	Errepublikako Kongresua.
Giza Eskubideen Amerika arteko Auzitegiak 2004an agindutako leheneratze-neurriak bete daitezen sustatzea. Marco Antonio Molina Theissenen gorpua bilatzea, desagertutako haurren absentsia eta heriotza-presuntzioko prozesua ezartzea eta informazio genetikoko sistema bat sortzea.	Nazioko Prokuradoretza Orokorra.
Alderdien eta erakunde prozesalen kautelazko neurrien eskaerei erantzutea.	Giza Eskubideen Prokuradoretza.
Zuzenbide, Gizarte, Humanitate, Komunikazio eta Politika Zientzien fakultateek kasuari buruzko dokumentala egitea	Guatemalako San Carlos Unibertsitatea.
Epaia Guatemalan eta Quetzaltenangon nagusi den maia hizkuntzara itzultzea.	Erakunde Judizialeko Indigenen Gaietarako Idazkaritza.
Beka programaren barruan, Marco Antonio Molina Theissen izeneko beka bat sartzeari maila guztietan.	Hezkuntza Ministerioa.
Molina Theissen izeneko kondekorazio bat sortzea, lan humanitarioetan nabarmentzen diren Armadako ofizialentzat eta kideentzat.	Defentsa Nazionaleko Ministerioa.
Barne gatazka armatuko toki eta hilerri klandestinoei buruzko egiazko informazioa ematen duten pertsonentzako ordain ekonomiko bat sartzeari aurrekontuetan.	Gobernazio Ministerioa.
Presidenteak urriaren 6a Desagertutako Haurren Egun Nazional deklaratzeari, Marco Antonio bahitu zuten eguna oroitzeko.	Erakunde Exekutiboa.
Oroitzapenezko monumentu bat eraikitzea Emma Guadalupe Molina Theissen izenarekin, eremu militar horretan jasan zituen irainengatik	Quetzaltenangoko Udala eta Kultura Ministerioa.

Iturria: Egileak, Zigor Epaiaren, Narkoaktibitatearen eta Ingurumenaren aurkako Delituen Lehen Auzitegiko Arrisku Handieneko prozesuen C Taldean oinarrituta (2018).

Molina Theissen familiak balio sinboliko handiko beste neurri batzuk eskatu zituen, baina auzitegiak atzera bota zituen, hala nola Defentsa Ministerioak zigortuei desohorezko baja ematea. Ikerketa honetarako elkarriketatu egin dugu María Eugenia Molina Theissen, Emma Guadaluperen ahizpa eta Marco Antonioren arreba. Haren hitzetan:

“Guatemalako epaia ez da irmoa. Hori, gorte altuen ustelkeriarekin eta erabaki ilegalekin batera, gure familiaren aurkako beste bidegabekeria bat da. Epai

nazionalen jasotako erreparazioak galdagarriak izango dira epaiaren egoera aldatzen denean. Baina horrek ez du esan nahi Estatuko instantziek Amerika arteko Auzitegiak agindutako erreparazioak bete behar ez dituztenik. Horien bitartez hainbat oztopo ezabatu behar dira, hala nola artxibo militarretarako sarbiderik eza, Ministerio Publikoko eta justizia sistemako ustelen hitzarmenaren konplizitatea, baita honako hauetarako borondaterik eza ere: Marco Antonioren gorpua itzultzeko, gertatutakoa argitzeko, datu genetikoaren banku bat ezartzeko eta desagertze behartuko kasuetan ustezko heriotza deklaratzeko, efektu penalik gabe” (elkarrizketa pertsonala, 2024ko urria).

Kasuaren ondorio positiboen artean aurkitzen ditugu Guatemalako Estatuak Marco Antonioren desagertze behartuan duen erantzukizuna partzialki onartu zuela, eta agerian geratu zela hainbat pertsonaren aurka jokatu zuela, hain zuzen ere, pertsona horiek herritarren bizi baldintzak hobetzeko eta giza eskubideak defendatzeko helburua zuten antolakuntza eremuetan parte hartzen zutelako.

2023an, Molina Theissen familiak *Marco Antonio. Viaje a la verdad* istorio grafikoa argitaratu zuen (CEJIL, 2023). Horrek ezagutzera ematen du haurren desagertze behartua Guatemalan. Hala, 2024an, familiak gorpua aurkitzeko beste ahalegin bat egin zuen, eta informazioa izan dezaketen pertsonen hura modu anonimoan eta konfidentzialean partekatzeko eskatu zien, Whatsapp sare sozialaren bitartez +1 (917) 889-5511 zenbakira.

4. Biktimak artatzeko politikak

4.1. Erreparazio Programa Nazionalea

Erreparazio Programa Nazionalea (PNR) 2003an sortu zen, Guatemalako Estatuak Bake Akordioekin (1996) hartutako konpromisoaren emaitza gisa. Haren helburua barne gatazka armatuan egindako giza eskubideen urraketek eragindako kalteak konpontzea zen, biktima zibilei erreparazio indibidualak zein kolektiboak emanaz. Programa sortzen zuen 258-2003 Gobernu Akordioak ezarri zuen giza eskubideen zer urraketa eta gizateriaren aurkako zer krimen hartu behar ziren kontuan erreparazioetarako (ikus 5. taula).

5. taula. Erreparazio Programa Nazionalean jasotako giza eskubideen urraketak eta gizateriaren aurkako delituak	
a	Desagertze behartua
b	Judizioz kanpoko exekuzioak
c	Tortura fisikoa eta psikologikoa
d	Lekualdatze behartua
e	Adingabeen errekrutatze behartua
f	Sexu-indarkeria eta sexu-bortxaketa
g	Haurren aurkako bortxaketak
h	Sarraskiak
i	Lehen ez aipatutako beste urraketa batzuk, Erreparazio Batzorde Nazionaleak (CNR) ezagutuko eta ebatziko dituenak

Iturria: Egileak, 258-2003 Gobernu Akordioan oinarrituta.

Nazioarteko esparruaren arabera, erreparazioaren oinarrizko printzipioen artean daude leheneratzea, kalte-ordainketa, errehabilitazioa, erreparazioa eta ez betetzeko bermeak. PNRa sortu zuen gobernu akordioak biktimei erreparazioa emateko hainbat neurri jasotzen ditu, horien artean erreparazio kulturala ere. Hala ere, ez ditu ez errepikatzeko bermeak jasotzen (ikus 6. taula).

6. taula. Erreparazio Programa Nazionalak jasotako erreparazio neurriak	
1	Leheneratze materiala Lurra, etxebizitza, lurraren eta inbertsio produktiboaren segurtasun juridikoa leheneratzea.
2	Kalte-ordain ekonomikoa Indibiduala edo kolektiboa.
3	Erreparazio psikosoziala eta errehabilitazioa Desgaitasunen bat duten pertsonen, sexu-indarkeriaren biktimen diren emakumeen, desagertutako haurren senideen eta pertsona adinduen arreta psikosoziala eta errehabilitazioa ematea. Kultura leheneratzea eta hezkuntzarako sarbidea ematea.
4	Biktimak duintzea Biktimen Duintasunaren Egun Nazionala ospatzea (otsailaren 25a). Egia Argitzeko Batzordearen txostena zabaltzea eta sustatzea. Memoria gordetzeko museoak eta biktimak duintzeko monumentuak. Exhumazioak.
5	Erreparazio kulturala Kultura leheneratzeko honako hauek ezartzen dira: usadioak eta kultura ezagutzera ematea, kaltetutako komunitateen kultura-ezaugarri nagusiak jasotzea eta sistematizatzea, historia komunitarioa berreskuratzea, kultura aniztasuna eta kulturartekotasuna sustatzea, eta ama hizkuntza berreskuratzea.

Iturria: Egileak, 258-2003 Gobernu Akordioan eta "Liburu Urdinean"
(Erreparazio Politika Publikoa) oinarrituta.

Erreparazio Batzorde Nazionala PNRaren erabaki organo gorena da, eta hark ezartzen ditu ordain ekonomikoari dagozkion zenbatekoak, eskatzaileak jasandako giza eskubideen urraketen arabera (ikus 7. taula). Zenbateko horiek, egia esateko, ez dira nahikoak indarkeriak biktimengan eragindako kalte guztiak ikusita.


7. taula. Kalte-ordainen zenbatekoak, giza eskubideen urraketen arabera	
Giza eskubideen urraketa	Zenbatekoa (quetzaletan)
Judizioz kanpoko exekuzioa, sarraski batean hiltzea edo desagertze behartua.	24.000
Tortura edo sexu-bortxaketa.	20.000
Judizioz kanpoko exekuzioen, desagertzeen edo sarraskien biktimen bat baino gehiago duen familia-nukleoa.	44.000 (gehienez)
Torturaren eta sexu-bortxaketaren biktimak, beren familia-nukleoan beste biktimarik dutenean.	44.000 (gehienez)

Iturria: Corporación Humanas (2008: 187).

20 años del PNR, Impacto del Programa Nacional de Resarcimiento para las víctimas del conflicto armado de Guatemala (Impunity Watch, 2023: 12) txostenaren arabera, 57.523 espedientetatik, PNRak erreparazioak eman zituen 27.233 espedientetan eta, oraindik,

beste 30.290 daude erreparatzeko. Espedienteetan, guztira, 77.319 biktima daude, 27.531 emakume eta 49.788 gizon. Biktima guztietatik, 35.694 bizirauleak dira, 24.148 hildakoak dira eta 17.207 desagertuak dira⁴.

1. irudia. Erreparazio Programa Nazionalaren eragina (2003-2023)



Iturria: Egileak, Impunity Watch-eko datuetan oinarrituta (2023).

Egia Argitzeko Batzordearen txostenak (1999) kopuru hauek ematen ditu: 200 mila biktima hilketari eta desagertze behartuari dagokienez, milioi bat biktima baino gehiago lekualdatzei dagokienez, 669 sarraski eta sexu-indarkeriako 1.465 egitate. Beraz, PNRaren datu horiek erakusten dute Estatuaren erantzuna erabat eznahikoa izan dela gatazka armatuan egindako giza eskubideen urraketen irismena eta eragina ikusita.

4 Ikerketa honetarako hurrengo informazio hau eskatu zitzaion Garapen Ministerioaren FODES Garapenerako Funtsari, Informazio publikorako sarbideari buruzko Legearen bitartez: 1) Onuradunen kopurua, datuak sexuaren, adinaren, etniaren eta jatorriaren arabera bereizita; 2) Arreta eta laguntza psikologikoko programen onuradunen kopurua, datuak sexuaren, adinaren, etniaren eta jatorriaren arabera bereizita; 3) Gobernu desberdinetan gauzatutako aurrekontua, sortu zenetik 2023ra bitartean; 4) Gobernu desberdinetan erreparazioa emandako pertsonen kopurua, sortu zenetik 2023ra bitartean, datuak programen kontzeptuen edo eskubideen urraketen arabera bereizita; 5) Nesken eta emakumeen aurkako indarkeriako, sexu-indarkeriako eta sexu-esklabotzako kasuetan aplikatutako genero ikuspegi edo politika espezializatuak; 6) Jasotako espedienteen kopurua, datuak bizirauleen, hildakoen eta desagertuen sexuaren, adinaren, etniaren eta jatorriaren arabera bereizita; 7) Erreparatutako espedienteen kopurua, datuak bizirauleen, hildakoen eta desagertuen sexuaren, adinaren, etniaren eta jatorriaren arabera bereizita, eta 8) Nazioko eta nazioarteko epaiei dagokizken erreparazio neurrien betetze-maila, kopuruak, kasuak eta urteak. Ez zenez erantzunik jaso beste eskaera bat egin zen –oraindik tramitean dagoena–, COPADEH Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Presidentetza Batzordearen bitartez.

Impunity Watch erakundearen txostenak (2023), bada, biktimen eta giza eskubideen erakundeen iritziak jasotzen ditu. Hala, PNRak sexu-indarkeriaren biktimek eta herri indigenetakoek jasaten dituzten ondorio emozionalak, fisikoak eta sozialak aintzat hartzen eta identifikatzen baditu ere, txostenaren arabera programak ez du generoko edo kultura egokitasuneko ikuspegirik arreta eta erreparazio egokia emateko.

4.2. Desagertutako pertsonak bilatzeko mekanismoak

Barne gatazka armatuaren biktimen eta giza eskubideen aldeko erakundeen proposamenak, eskaerak eta exigentziak gorabehera, Guatemalak ez du atxilotutako-desagertutako pertsonak eta beste testuinguru batzuetan desagertutako pertsonak bilatzeko mekanismorik.

Hortaz, zenbait taldek bi lege-ekimen aurkeztu dituzte Errepublikako Kongresuan, Estatuak desagertutako pertsonak bilatzeko eta aurkitzeko neurri argiak har ditzan. Horietako lehena Desagertze Behartuaren eta Beste Desagertze Mota Batzuen Biktimak Bilatzeko Batzordeari buruzko 3950 Lege ekimena da, 2006an aurkeztua. Proposamenak Desagertze Behartuaren eta Beste Desagertze Mota Batzuen Biktimak Bilatzeko Batzorde bat sortzea aurreikusten du, baita Desagertze Behartuaren eta Beste Desagertze Mota Batzuen Biktimen Erregistro Nazional bat ere. Hura aurkeztu zenetik ia 20 urtera, oraindik ez dira lortu Errepublikako Kongresuan Legea onartzeko behar diren adostasunak; aurrerapausorik handiena bigarren eztabaidan lortutako onarpena izan zen, baina oraindik onartzeko dago hirugarren eztabaidan eta behin betiko. Ondorioz, biktimek eta giza eskubideen aldeko erakundeek egia argitzeko mekanismoak sortzeko eskatzen jarraitzen dute, barne gatazka armatuan zehar atxilotutako-desagertutako 40.000 pertsonak aurkitu ahal izateko.

Bigarren proposamena 5635 lege ekimena da, desagertutako pertsonak bilatzeko esparru Legea, alegia. Horrek hainbat testuingurutan planteatzen du desagertutako pertsonen bilaketa, ez soilik barne gatazka armatuari dagokionez. Halaber, Desagertutako Pertsonen Erregistro Nazional bat sortzea proposatzen du. Bigarren ekimen hau aurrekoa baino gutxiago aurreratu da; izan ere, 2021an aurkeztu zen Errepublikako Kongresuan, eta onartzeko dago hiru eztabaidetan eta behin betiko.

Aitzitik, bai onartu dira Guatemalan desagertutako haurrak berehala bilatzeko alerta-sistema, Alba-Keneth, eta desagertutako emakumeak berehala bilatzeko mekanismoa, Isabel-Claudina. Biek alertak erabiltzen dituzte eta Polizia Nazional Zibilaren laguntza eta erakunde arteko beste koordinazio batzuk behar dituzte. Isabel-Claudina alertak, Ministerio Publikoaren Emakumeen Behatokiaren bitartez, informatzen du 2024an 1.479 alerta aktibatu direla. Horietatik, 1.334 emakume aurkitu dira eta 145 alerta aktibo daude oraindik. Egunero lau emakume desagertzen dira batez beste (Ministerio Público, 2024).

2. irudia. 2024an zehar desagertutako emakumeak



Iturria: Egileak, Ministerio Publikoko Emakumeen Behatokiaren 2024ko urriko datuak erabiliz.

4.3. Datu genetikoen bankua

Auzitegi Erabilerako Datu Genetikoen Bankuaren Legeak (22-2017 Dekretua) ezarri egin zuen Auzitegi Zientzien Institutuaren ardura zela Bankua garatzeko araudia ematea, arlo horretan eskumena duen erakunde gisa. Araudia CD-INACIF-32-2018 Akordioan gauzatu zen. Hark kasuen sailkapen instituzional bat jasotzen du, eta, besteak beste, desagertutako pertsonen profil genetikoei dagokie. Hala, adierazten du senideen laginak agintari eskumendun batek eskatuta hartzen direla, baina ez du gatazka armatuan desagertutako pertsonen datu genetikoaren banku bat aurreikusten.

Politika publikoaren beste arlo batzuetan gertatzen den bezala, erantzuten ez duen Estatu baten aurrean, biktimen erakundeak eta giza eskubideen aldekoak dira egia eta justizia bilatzeko ekarpen nagusiak egiten dituztenak. Horixe da, hain zuzen, Guatemalako Auzitegi Antropologiako Fundazioaren kasua. Hura 1997an sortu zen eta, harrez geroztik, gatazka armatuaren biktimak exhumatzeko eta identifikatzeko ahalegin handiak egin ditu. Bere lanari esker, senideen bila dauden pertsonen 18.543 DNA lagin jaso dira, 8.355 biktima berreskuratu dira exhumazioen bitartez, eta horietako 3.923 identifikatu dira. Gainera, 877 bizi-istorio dokumentatu ditu eta, adituen hainbat txostenen bitartez, elementu zientifikoak eskaini ditu trantsizioko justizia kasuetan.

3. irudia. Gatazka armatuko biktimak berreskuratzea eta identifikatzea (FAFG, 1997-2024)



Iturria: Egileak, FAFG fundazioaren 2024ko datuak erabiliz.

Azkenik, esan dezakegu dagoen datu-bankua lagungarria izango dela, epe ertain eta luzean, sexu-indarkeriako gaur egungo kasuetarako. Izan ere, Ministerio Publikoaren bitartez sexu-delituengatik zigortutako pertsonen erregistroa aberastu ahal izango da nazio mailan.

5. Amnistia ahaleginak eta inpunitatearen aldeko ekintzak: etengabeko arriskua

1996an onartutako Adiskidetze Nazionalaren Legeak (145-1996 Dekretua) gatazka armatuan egindako delitu politikoen erantzukizun penala erabat iraungitzea aldarrikatu zuen. Hala ere, 8. artikuluan zehaztu egiten du iraungitze hori ezin dela genozidio, tortura eta desagertze behartuko delituetan aplikatu, ezta iraungitzen ez diren edo beren erantzukizun penala iraungitzen ez den beste delitu batzuetan ere. Hori bat dator barne zuzenbidearekin eta Guatemalak sinatutako nazioarteko hitzarmenekin.

Hala ere, Armadaren kideko zenbait eragilek gizateriaren aurkako krimen horien erantzuleen zigorgabetasuna bermatzeko ahaleginak egin dituzte. Horien artean, kasu nagusi bat Morales presidente ohiaren gobernuko diputatu ofizialistek aurkeztutako 5377 ekimena izan zen. Haren bitartez, Adiskidetze Nazionalaren Legearen zenbait artikulua erreformatu nahi zituzten, Edgar Justino Ovalle diputatu ohiaren eta koronel erretiratuaren inpunitatea bermatzeko. Izan ere, hura Creompaz kasuan seinalatua izan zen eta iheslari bilakatu zen. NBEko giza eskubideen arloko zenbait adituk lege-ekimen hura ez onartzeko eskatu zioten Errepublikako Kongresuari, eta, azkenik, Konstituzionaltasun Gortearen ebazpen baten ondorioz artxibatua izan zen. Hala ere, gatazka armatuan egindako krimenen erantzuleen zigorgabetasuna nahi duten diputatuek proposamen berriak aurkeztu dituzte hori lortzeko, hala nola 6099 eta 5920 ekimenak (ikus 8. taula).

Ekimen horien aurrerabidea, momentuz, eskasa izan da, baina zigorgabetasun estrategia integral batean kokatzen dira. Estrategia horren barruan aurkitzen ditugu, halaber, auzi maltzurra trantsizioko justiziako kasuetan, prozesuak luzatzeko eta oztopatzeko, eta justizia sistemaren kooptazioa ere. Azken horren bitartez, zigortutako pertsonen aldeko ebazpenak lortu dituzte, ordezkotik neurriak, kartzelatik ateratzea edota absoluzioa ere ekarri dituztenak. Atzerapauso horiek eragin handia dute biktimengan eta lagun duten giza eskubideen aldeko erakundeetan.

Ekimen horiek babesten dituzten diputatuek joera kontserbadoreak eta eskubideen aurkakoak ordezkatzeko dituzte Errepublikako Kongresuan, eta, hain zuzen, Guatemalako Inpunitatearen aurkako Nazioarteko Batzordetik irtetea sustatu zuten blokeetako kideak dira. Halaber, kontuak emateko eta giza eskubideak betetzen direla bermatzeko instituzioetan ustelkeriaren eta inpunitatearen aldeko interesak instalatzea sustatu dute, hala nola Kontuen Kontrolakunde Orokorrean, Defentsa Publiko Penalaren Institutuan, Tortura Prebenitzeko Bulego Nazionalan, Giza Eskubideen Prokuradoretzan eta Erakunde Judizialarekin lotutakoetan (Impunity Watch, 2021: 6). Horiek, bada, biktimen eskubideak bermatzeko eta giza eskubideen urraketa larrietako kasuen epaiak betearazteko funtsezko erakundeak dira.

Estatuaren estrategia –eta bakearen instituzionaltasun hori desegin nahi duten beste eragile batzuen ere– sakondu egin zen Alejandro Giammatteiren Gobernuan zehar;

hain zuzen ere, Bake Akordioen ondorioz sortutako erakundeen independentzia, funtzionamendua eta izate bera oztopatu zituzten gobernu akordioen bitartez. Izan ere, erakunde horien helburua erreparazio indibidual eta kolektiboak betetzea zen, eta gatazka armatuak Guatemalako herritarrengan izandako ondorio handiak konpontzeko behar ziren aldaketak sustatzea.

Kaltetutako erakundeen artean honako hauek aurkitzen dira: Nekazaritza Gaietarako Idazkaritza (SAA), 97-2020 Gobernu Akordioaren bitartez indargabetua; Errepublikako Presidentetzaren Bake Idazkaritza (SEPAZ), 98-2020 Gobernu Akordioaren bitartez indargabetua; eta Giza Eskubideen Arloko Exekutiboaren Politika Koordinatzeko Presidentetzako Batzordea (COPREDEH), 99-2020 Gobernu Akordioaren bitartez indargabetua⁵. Indargabetze horiekin batera, gobernuak biktimak artatzeko eta PNRari jarraipena emateko instantzia bat sortu zuen, Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Presidentetza Batzordea (COPADEH), alegia. Hura Gizarte Garapen Ministerioaren barruan kokatzen da, hau da, historikoki hauteskunde helburuekin eta gizarte programen bitartez instrumentalizatu izan den ministerio batean.

5 Giammattei presidente ohiaren agintaldian Emakumearen Presidentetzako Idazkaritza (SEPREM) ere indargabetzen saiatu ziren, baina hark iraun zuen emakumeen erakundeek eta Giza Eskubideen Prokuradoretzak egindako ekintzei eta aurkeztutako demandei esker.

8. taula. Diputatuek gatazka armatuko krimenengatiko erantzukizun penala irautzeko aurkeztutako lege-ekimenak					
Zkia.	Urtea	Txostengileak	Egoera	Batzordeak	Proposamena
5377, Adiskidetze Nazionalaren Legea Erreformatzeko Legea.	2017	1. Boris Roberto España Cáceres. 2. Claude Harmelin De León. 3. Delia Emilda Bac Alvarado De Monte. 4. Estuardo Ernesto Galdámez Juárez. 5. Fernando Linares-Beltranena. 6. Héiber Armando Melgar Padilla. 7. Jaime José Regalado Oliva. 8. Javier Alfonso Hernández Franco. 9. Javier Alfonso Hernández Ovalle. 10. José Armando Ubico Aguilar. 11. Julio Francisco Lainfiesta Rimola. 12. Manuel Eduardo Conde Orellana.	Bigarren Eztabaida.	Giza Eskubideen Batzordea Legegintza eta Konstituzio Puntuen Batzordea.	Adiskidetze Nazionalaren Lege 145-96 Dekretuari Erreformak (1, 5 eta 11. artikulua erreformatzea eta 2, 4 eta 8. artikulua indargabetzea).
5920, Bakea eta Adiskidetzea Finkatzeko Legea.	2021	1. Antonio Fernando Arenales Forno. 2. Ana Lucrecia Marroquín Godoy De Palomo. 3. José Francisco Zamora Barillas. 4. Efraín Menéndez Anguiano. 5. José Luis Galindo De León. 6. Gerardín Ariel Díaz Mazariegos. 7. Leopoldo Salazar Samayoa. 8. Esteban Rubén Barrios Galindo. 9. Sergio Leonid Chacón Tarot.	Osoko bilkuran egon zen eta batzordeetara bidali zuten 2021eko irailaren 22an.	Gobernazio Batzordea. Defentsa Nazionalako Batzordea.	Erantzukizun penala irautzeko.
6099, Bakea Indartzeko Legea.	2022	1. Javier Alfonso Hernández Franco. 2. José Francisco Zamora Barillas. 3. Hugo Otoniel Rodríguez Chinchilla. 4. Manuel Eduardo Conde Orellana. 5. Jorge Estuardo Vargas Morales. 6. José Alberto Sánchez Guzmán. 7. Víctor Israel Guerra Velásquez. 8. Lilian Piedad García Contreras. 9. Boris Roberto España Cáceres. 10. Julio Cesar Longo Maldonado. 11. Hernán Morán Mejía. 12. José Adolfo Quezada Valdéz. 13. Carlos Roberto Calderón Gálvez. 14. Carlos Napoleón Rojas Alarcón. 15. Juan Francisco Mérida Contreras. 16. Héiber Armando Melgar Padilla. 17. Efraín Menéndez Anguiano.	Aldeko irizpena.	Giza Eskubideen Batzordea.	Erantzukizun penala irautzeko.

Iturria: Egileak.

Aipatutako desegite instituzionalaz gain, eta emakumeei justizia eta erreparazio neurriak tantaka heltzen zaizkien bitartean, Guatemalako armadak aurrekontu handia du (ikus 9. taula), eta Autodefentsa Zibileko patruilari ohiak “beren herrialdea zerbitzatzeagatik” sarituak izan dira, Garapen Integraleko Aldi baterako Legearen bitartez (51-2022 Dekretua). Arau horrek Garapen Integraleko Programa sortu zuen, eta, horren bitartez, 36.000 quetzal emango dizkiote onuradun bakoitzari. Programa hiru urtetan egikariturako da, eta 1.000 quetzal esleituko dira hileroko programa horretan aktiboki parte hartzeagatik⁶.

4. irudia. Defentsa Nazionaleko Ministerioaren aurrekontua, 2024an

2024ko aurrekontua
Defentsa Nazionaleko Ministerioa

3.222.251.260

Quetzaleko aurrekontua



Iturria: Egileak, 1-2024 Dekretuko informazioa erabiliz (2024ko Ekitaldi Fiskalerako Estatuaren Diru Sarreraren eta Gastuen Aurrekontu Orokorriaren buruzko Legea).

Hala, gizateriaren betebeharren aurkako delituengatik epaitutako eta zigortutako pertsonen defentsak iraungitzeak, kartzelatik irtetea edo absoluzioak lortzeko egindako ekintzekin batera, horrek guztiak indartu egiten ditu zigorgabetasun politikak eta gatazka armatuan gertatutakoaren larritasuna ukatzen duten jarrerak, batez ere emakumeen eta herri indigenen aurkako egitateei dagokienez.

⁶ Legea urriaren 12an onartu zen, hau da, erresistentzia indigenaren egunean.

9. taula. Estatuko Aurrekontu orokorrak, 2024	
Guztira	Zenbatekoa (quetzaletan)
Errepublikako Presidentetza	205.000.000
Kanpo Harremanen Ministerioa	739.785.000
Gobernazio Ministerioa	7.303.401.000
Defentsa Nazionaleko Ministerioa	3.222.251.260
Hezkuntza Ministerioa	22.254.422.300
Osasun Publikoko eta Gizarte Laguntzako Ministerioa	12.053.413.000
Lan eta Gizarte Aurreikuspen Ministerioa	1.413.475.000
Ekonomia Ministerioa	497.004.000
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Ministerioa	1.514.204.100
Komunikazioak, Azpiegitura eta Etxebizitza Ministerioa	5.791.630.00
Energia eta Meatzaritza Ministerioa	242.687.000
Kultura eta Kirol Ministerioa	672.675.000
Exekutiboaren idazkaritzak eta beste sail batzuk	1.432.794.600
Ingurumen eta Baliabide Naturalen Ministerioa	277.580.000
Estatuaren Obligazioak Altxorren Kontura	40.311.017.000
Zor Publikoaren Zerbitzuak	16.141.734.740
Gizarte Garapen Ministerioa	1.428.141.000
Nazioaren Prokuradoretza Orokorra	152.322.000
Guztira	116.130.673.000

Iturria: Egileak, 1-2024 Gobernu Akordioan oinarrituta.
Estatuaren Sarreren eta Irteeren Aurrekontu Orokorra 2024 Ekitaldi Fiskalerako.

6. Ondorioak

Lan honetan azaldutako kasuek erakutsi egiten dituzte Armadak gatazka armatuan zehar eta matxinoen aurkako politika genoziden esparruan egindako giza eskubideen urraketa larriak. Estatuaren politika horien artean aurkitzen ditugu legez kontrako atxiloketak, judizio kanpoko exekuzioak, tortura, sexu-indarkeria, desagertze behartua eta lurrak kentzea, besteak beste. Krimen horietan talde paramilitarrek ere parte hartu zuten, hala nola Autodefentsa Zibileko Patruilek; eta inteligentzia militarreko egitura klandestinoak erabili zituzten Estatuaren “barne etsai” gisa ikusitako pertsonak eta taldeak zelatatze eta sarraskitzeko.

Sepur Zarco, Emakume Atxien eta Molina Theissen kasuetan, argi ikusten da sexu-indarkeria gerrako arma eta tortura-metodo gisa erabili zutela, emakumeak zigortzeko eta, terrorearen bitartez, komunitateak banatzeko. Indarkeria horrekin batera gizateriaren aurkako beste krimen batzuk ere egin zituzten, hala nola desagertze behartua.

Biktima bizirauleek hainbat urteko bidea egin dute, hain zuzen ere, inposatutako isiltasunez, estigmatz eta justizia eta erreparazio eskubideen aurkako oztopoz betetako bide luzea. Eskubide hori mugatzen, atzeratzen edo eragozten duten faktoreak ugariak dira. Esate baterako, ez dago generoan espezializatutako eta elementu kultural eta komunitarioekin aberastutako prozesu judizialik. Horrek erakusten du justizia-sistemak ez duela neurria ematen gatazka armatuko delituen larritasunari aurre egiteko. Baina biktimen eta lagun dituzten erakundeen jarraitutasunak, indarrak eta duintasunak emaitzak izan dituzte, hala nola sexu-indarkeriako krimenagatik erantzukizunak eskatzeko ezarri diren aurrekari juridikoak. Gainera, ez errepikatzeko nahiak dira biktimek bideratutako prozesuen ondare nagusia. Izan ere, nahi horiek eskubideak benetan erabiltzera, demokrazia indartzera eta bakean aurrera egitera zuzentzen dira.

Justizia eskaera horren parte gisa, auzitegiek ezarritako erreparazioak ezinbestekoak dira urratutako eskubideak nolabait leheneratzeko. Hala ere, horien aplikazioa Estatuaren eta bere organoen borondate politikoaren menpe geratzen da, eta hori erronka handia da biktimentzat.

Alde batetik, Errepublikako Kongresuak, legegintza gaitasunaren bitartez, erreparazioetarako beharrezkoak diren aurrekontuak onartzeko ahalmena du, gatazka armatuan desagertutako pertsonak bilatzen laguntzeko mekanismoak sor ditzake –adibidez, banku genetiko bat–, Armadaren artxiboetarako sarbidea eman dezake, oroitzapen-egunak ezar daitezzen susta dezake, eta abar. Baina haren jarduerak Kongresuaren konposizioaren eta talde politikoen arteko harremanaren menpe geratzen da. Beraz, gaur egun, horietako gehienek ustelkeriako eta zigorgabetasuneko intereseekin bat egiten dute. Lege-ekimenek eta gobernu akordioek delitu larrien erantzuleen zigorgabetasuna bermatu nahi dute eta bakearen instituzionaltasuna ahuldu nahi dute. Izan ere, Estatuak hartutako konpromisoak eta trantsizio justiziako kasuen epaiak betearazteaz arduratzen dira erakunde horiek. Hortaz, justizia eta erreparazioa lortzeko bidean, areagotu egiten dira sexu-indarkeriaren biktimen zailtasunak.

Beste alde batetik, biktimek jasaten dituzten oztopoak justizia-sisteman ere aurkitzen dira. Bada, irizpenetako batzuk lan honetan azaldutako kasuen epai historikoetan lortutako aurrerapenak atzeratzen ari dira; izan ere, justiziarako sarbidea blokeatzen dute, gizateriaren aurkako delituengatik zigortutako pertsonen aldeko neurriak ematen dituzte, eta biktimak eta lagun dituzten erakundeak kriminalizatzen dituzte.

Armadaren kideek sexu-indarkeria, sexu-esklabotza eta etxeko esklabotza ukatzen jarraitzen dute eta erasotzaileak faboratzeko ahaleginak egiten dituzte. Hala, horren ondorio larrienetako bat da zigorgabetasun mezu bat igortzen zaiola gizarte osoari. Halaber, Ministerio Publikoak biktimek salatutako egitateak ikertzeko erakusten duen moteltasunak eta salaketak gaitzesteko duen joerak emakumeen aurkako indarkeria *continuum* hura larriagotzen dute.

Guatemalaren historia bortitza eta mingarria da, baina, beste edozeren gainetik, erresistentziako eta duintasuneko historia bat da. Hala, Sepur Zarcoko amamek, emakume atxiek eta Molina Theissen familiak eskaintzen dituzten irakaspenek, borrokaren sinbolo bihurtuta, aurrekariak ezartzen dituzte. Eta horiek balio handia dute pertsona askorentzat, hain zuzen ere, justizia ezartzea, gertatutakoa aintzat hartzea, egia argitzea eta memoria ehuntzea lortu nahi duten horientzat. Erakutsi egiten digute minetik ere ahizpatasun sare sendoa sor daitekeela, elkarrekin ibiltzeko, eta lurraldeetan indarkeriarik onartzen ez duen bititze ona lortzeko.

7. Bibliografia

- CEJIL (2020). *Molina Theissen*. Otsailaren 14an.
<https://cejil.org/caso/molina-theissen/>
- CEJIL (2023). *Marco Antonio. Viaje a la verdad*.
<https://viajealaverdad.com/>
- CIDH (2004). *Caso Molina Theissen vs. Guatemala*. Giza Eskubideen Amerika arteko Auzitegia, maiatzaren 4ko epaia. C saila, 106. zkia.
<https://jurisprudencia.corteidh.or.cr/es/vid/883975002>
- CIDH (2012). *Caso Gudiel Álvarez y otros ("Diario Militar") vs. Guatemala*. Giza Eskubideen Amerika arteko Auzitegia, azaroaren 20ko epaia. C saila, 253. zkia.
<https://jurisprudencia.corteidh.or.cr/es/vid/883975694>
- Corporación Humanas (2008). "El resarcimiento: una deuda más pendiente con las mujeres en Guatemala". In *Sin tregua. Políticas de reparación para mujeres víctimas de violencia sexual durante dictaduras y conflictos armados*. Santiago de Chile: Humanas. Centro Regional de Derechos Humanos y Justicia de Género.
https://www.humanas.cl/wp-content/uploads/2014/11/sin_tregua.pdf
- Egia Argitzeko Batzordea (CEH) (1999). *Guatemala, memoria del silencio*. Guatemala: UNOPS.
https://www.undp.org/sites/g/files/zskgke326/files/migration/gt/UNDP_gt_PrevyRecu_MemoriadelSilencio.pdf
- Errepublikako Gobernua (2003). *Acuerdo Gubernativo 258-2003. Programa Nacional de Resarcimiento*. Errepublikako Presidentetza. Maiatzaren 7koa.
<https://www.refworld.org/legal/decrees/natlegbod/2003/es/121548>
- Errepublikako Gobernua (2024). *Acuerdo Gubernativo 1-2024. Distribución del Presupuesto General de Ingresos y Egresos del Estado para el Ejercicio Fiscal 2024*. Urtarrilaren 3koa.
- Fulchiron Amandine (2021). *Ley de mujeres, amor, poder propio, autoridad y comunidad*. Guatemala: Ediciones del Pensativo.
https://www.minfin.gob.gt/images/downloads/leyes_acuerdos/Acuerdo%20Gubernativo%20No.%201-2024.pdf
- Guatemalako Artzapezpikutzaren Giza Eskubideen Bulegoa (1998). *Guatemala Nunca Más. Informe del Proyecto de Recuperación de la Memoria Histórica (REMHI)*. ODHAG, Guatemala.
<https://www.odhag.org.gt/publicaciones/remhi-guatemala-nunca-mas/>
- Guatemalako Artzapezpikutzaren Giza Eskubideen Bulegoa (2007). *Lucha, dolor y esperanza del campesinado guatemalteco*. Guatemala.
https://www.odhag.org.gt/lucha_dolor_y_esperanza_campesinado/
- Guzmán Orellana, Gloria (2021). "Procesos judiciales en casos de graves violaciones de derechos humanos de las mujeres en el conflicto armado de Guatemala". In Mendia

- Azkue, Irantzu (koord.). *Estrategias feministas de justicia y reparación en Guatemala y Colombia*, Bilbo: Hegoa Institutua (UPV/EHU) (13-44).
<https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/es/publications/458>
- Impunity Watch (2021). *Anomalías en el proceso de elección de la Corte de Constitucionalidad*. Guatemala.
<https://independenciajudicial.org/wp-content/uploads/2021/05/IW-informe-anomalias-en-la-eleccion-de-la-CC-mayo-2021.pdf>
- Impunity Watch (2022). *Sentencia del Caso Mujeres Achi. Resumen*. Guatemala.
https://www.impunitywatch.org/wp-content/uploads/2022/10/Guatemala_Resumen_de_la_sentencia_del_caso_mujeres_Achi_ES-1.pdf
- Impunity Watch (2023). *20 años del PNR, impacto del Programa Nacional de Resarcimiento para las víctimas del conflicto armado de Guatemala*. Guatemala.
<https://www.impunitywatch.org/publications/guatemala-impact-of-national-reparation-program-report-spanish/>
- Impunity Watch (d.g.). *La lucha de las Mujeres Achí por la justicia*.
https://www.impunitywatch.org/wp-content/uploads/docs/Guatemala_La_lucha_de_las_Mujeres_Achi_por_la_justicia_Spanish.pdf
- Méndez, Luz; Alvarado, Maya (2018). *Mujeres, justicia y resarcimiento. Violencia sexual en el conflicto armado*. Guatemalako Hiria: UNAMG.
<https://lac.unwomen.org/es/digiteca/publicaciones/2020/07/mujeres-justicia-y-resarcimiento-violencia-sexual-en-el-conflicto-armado>
- Nimatuj, Irma Alicia (2019). "La justicia nunca estuvo de nuestro lado". Gatazka armatuari eta sexu-indarkeriari buruzko azterketa kulturala Sepur Zarco kasuan, Guatemala. Bilbo: Hegoa Institutua (UPV/EHU).
<https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/es/publications/409>
- NBEko Emakumeen Saila (2018). *El caso Sepur Zarco: las mujeres guatemaltecas que exigieron justicia en una nación destrozada por la guerra*. Guatemala.
<https://www.unwomen.org/es/news/stories/2018/10/feature-sepur-zarco-case>
- Ross, Angie (2023). *Mujeres Achí: la búsqueda de justicia y reparación*. Ruda.
<https://www.rudagt.org/temas/mujeres-achi-la-busqueda-de-justicia-y-reparacion>
- UNAMG (2016). *Sepur Zarco. El camino de las mujeres hacia la justicia*.
<https://www.unamg.org/>
- UNAMG eta Hegoa Institutua (2012). *Ni olvido, ni silencio. Tribunal de Conciencia contra la violencia sexual hacia las mujeres durante el conflicto armado en Guatemala*, Guatemalako Hiria eta Bilbo.
<https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/publications/279>
- Zigor Epaiaren, Narkoaktibitatearen eta Ingurumenaren aurkako Delituen Lehen Auzitegia (2016). C-01076-2012-00021 Epaia. 2. bulegoa. 2016/02/26. Guatemala.
- Zigor Epaiaren, Narkoaktibitatearen eta Ingurumenaren aurkako Delituen Lehen Auzitegia, Arrisku handieneko Delituena "C" Taldea (2018). C-01077-1998-00002 Epaia. 1. bulegoa. 2018/05/23. Guatemala.
- Zigor Epaiaren, Narkoaktibitatearen eta Ingurumenaren aurkako Delituen Lehen Auzitegia (2022). C-15002-2014-00315 Epaia. 3. bulegoa. 2022/01/24. Guatemala.

